

## ANTTON AO POVO! MOZIOA

Zestoako seme den Antton Olaizola Atxukarrok lau hamarkada daramatza zigor penalik gabeko egoera injustu batean, sortzen ikusi zuen herritik erabat deserrotua, familia eta lagunengandik urrundua, harreman guztiak etenda eta 3500 km-tara kondenatua barroterik gabeko kartzela batean. Bizi osorako zigorra ezarri diotenetik gurasoak, lagunak eta iloba hil zaizkio bidean, azken agurra emateko ere aukerarik gabe gelditu delarik.

Deportazioa ez da neurri berria euskal herritarrontzat, 1987 urtean, hau da, pasa den mende bukaeran, estatu espainiarrak hirugarren herrialde batekin negoziatu ondoren ahoz hitzartutako erabakia baino ez da, erabaki ankerra erabat, zigor penalik gabeko zigor politiko hutsa baita deportazioa. Inolako eskubiderik gabe, paperik gabe, sendatzeko eskubiderik gabe, nortasuna galarazi arte birrintzeko asmoz, ez hango, ez hemengo sentitze arteraino asmatua dago deportazioa.

Garaiak aldatu dira ordea gauza batzuetarako, ETA desagertuta eta eragindako kaltea aitortuta eta gertatutakoa berriro ez errepikatzeko borondatea erakutsi denean, zein presoen urruntze eta sakabanaketa politikarekin amaitu denean, hau da, gatazkaren ondorioak bideratzen ari direnean, Anttonen aurkako neurri politiko anker horrek indarrean jarraitzen du oraindik.

Hori dela eta, egoera horrekin behingoz amaitzeko asmoz eta gatazkaren ondorio “guztiei” irtenbidea emateko borondatearekin, azken 50 urte hauetan gertatu denaz begirada edo pentsamendu ezberdin bat izan arren, irakurketa ezberdinak eduki arren, Anttonek pairatzen duen injustiziarekin amaitzeko ordua dela iruditzen zaigu. Horrela, herrian egin dugun informazio eta sentsibilizazio kanpainaren barruan “Antton Ao Povo” inguruan bildu ditugun 300 sinadura hauekin batera, honako hau eskatzen diogu udal batzar honi:

Herritarrek sinatutakoa Udalak babestu eta ontzat emateaz gain, onartutako mozioa Espainiako Gobernuari helaraztea.

- 1.- Anttoni ezarri zaion bizi osorako zigor honekin amaitzeko pausuak ematea.
- 2.- Gertatutakoaren aitortza egitea, erreparazioa eskaintzea eta berriro gerta ez dadin bermeak ezartzea, konponbide demokratiko bat sustatuz eta salbuespen neurri guztiekin amaituz.
- 3.- Anttonek bere herrian libre bizitzeko duen eskubidea aitortzea eta eskubide hori gauzatzeko bere eskura duen guztia egitea.
- 4.- Gatazkaren ondorioak ikuspegi integral batetik kontatzea eta konpontzea.

Antton Ao Povo Herri Ekimena  
Gosbin Ugarre Zinkunegi (15997917Z)